



# Garaizarko Matsorrien diskoa

**Bilboko Garaizarko Matsorriak ahots lodien abesbatzak 2012an beteko ditu 25 urte, baina 2011n hasiko dira urteurreneko ospakizunekin. Bizkaitarrak hasi dira jada motorrak berotzen, eta hori dela eta, disko bat kaleratu dute. Mende laurden honetan kantatu dituzten abestietako batzuk ezagutarazi nahi dituzte diskoaren bitartez.**

Grabazioa ekainean egin zuten HHmusik etxearekin Bilboko Ama Agustindarren Santa Monica komentuan. Miren Zubietak zuzendu zuen abesbatza eta Iker Herreroren aholkularitza tekniko

izan zuten.

Diskoa 16 abestiz osatuta dago: bilbainadak, euskal folkloreko kantuak eta habanera jasotzen ditu. Azken bi kantuak grabatzeko Leioako kontserbatorioko txistularien esker oneko laguntza izan zuten; grabazio hori beranduago egin zen Lezamako elizan.

Askotan entzun izan dira euren kantuak Begoñako kaleetan, plazatan eta tabernetan; euren jaioterria den Begoñako auzoari eskaini nahi izan dizkiote kantu horiek.

10 €tan salgai dago CDa. Interesa dutenek telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 630 275 654 (Txetxu).

## Historia laburra

1987an sortu zen gizezkoen korua Garaizarko Lagunak izenarekin, José Luis Etxebarria Goiriaren (Txelu) zuzendaritzapean. Bost urte geroago, Garaizarko Matsorriak izena hartu zuen abesbatzak. Garaizar Begoñako baserri baten izena zen. Bestalde, "Matsorriak" hitza garai bateko begoñarrei herri hizkeran deitzeko erabiltzen zen hitza da; inguru horretan txakoliña egiteko izan zen ohiturarekin zerikusia du izenak.

1998tik 2007ra bitartean José Antonio Calzada Aramburuk (Surti) zuzendu zuen korua. Gaur egun Miren Zubietak zuzentzen du 34 ahots lodiz osatutako abestaldea.



## Disco de Garaizarko Matsorriak

**El coro de voces graves Garaizarko Matsorriak de Bilbao cumplirá 25 años en 2012, pero comenzarán con los actos conmemorativos en 2011. Los vizcaínos han comenzado ya a calentar motores, y por ello, han editado un disco con el que se**

**pretende dar a conocer algunas de las obras del repertorio de este cuarto de siglo.**

Dirigidos por Miren Zubieta y con el asesoramiento técnico de Iker Herrero, la grabación se realizó en junio en el convento de las Madres Agustinas de Santa Mónica de Bilbao, por HHmusik.

El disco contiene 16 canciones entre bilbainadas, folklore vasco y habaneras. Para grabar las dos obras finales contaron con la inestimable ayuda de los txistularis del conservatorio de Leioa; esa grabación se realizó más tarde en la iglesia de Lezama.

Han querido ofrecer esas canciones a su Begoña natal, que tantas veces les oyó cantar en sus calles, plazas y tabernas.

CD a la venta al precio de 10 €.

Interesados llamar al teléfono 630 275 654 (Txetxu).

## Breve historia

En 1987 se fundó el coro de hombres con el nombre de Garaizarko Lagunak, bajo la dirección de José Luis Etxebarria Goiri (Txelu). Cinco años más tarde, toma el nombre de Garaizarko Matsorriak. Garaizar era el nombre de un caserío de Begoña. Por otra parte, la palabra "Matsorriak" es una expresión vasca con la que se denomina a los begoñeses de antaño y que tiene mucho que ver con la tradición txakolinera que tuvo la zona.

Entre 1998 y 2007 dirigió la coral José Antonio Calzada Aramburu (Surti). Actualmente Miren Zubieta dirige a un grupo de 34 voces graves.